

11-01-2020

## URIBARRI - BOLINTXU - PAGASARRI - ERREZTALEKU - CASILLA

Urtea ondo hasteko, Bilbo inguruko mendietara joango gara, eta, bukaeran, bat egingo dugu Sare plataformaren urteroko manifestazioarekin.

Panerako etxeen ondoan eta gure lokaletik hurbil dagoen autobus-geralekutik abiatuko gara.

Etxebarría parkea zeharkatu, eta Mallonatik jaitsiko gara, Zazpikaleetara.

Unamuno plazatik Atxurirantz egingo dugu, Erronda kaletik.

Atxuriko errepideari jarraitu, eta Kañu pasealekura iritsiko gara. Handik, Abusu auzora joango

gara, eta ibai bazterretik doan parkea ibiliko dugu. Aurrerago, Bolintxurantz joko dugu.

Bolintxura heltzeko, Ollarganeko parkearen behealdetik pasako gara, Arrigorriagara doan errepide ondotik.

Bolintxun gaudela, erreka jarraituko dugu ezkerraldeetik, eta laster desagertuko den natura-parajeaz gozatuko dugu (laster, Supersur delakoa handitzeko zubibidea eraiki, eta suntsitu egingo dute txoko hori).

Bidean aurrera egin, eta Artabe lepora iritsiko gara (500 m). Handik, Pagasarri tontorrera doan bide zuzena hartuko dugu (671 m).

Pagako larretatik Ganetara igoko gara (689 m). Tontorrean, antena eta hedagailuak. Gailur-lerrotik jarraituta, Erreztalekura helduko gara (8586 m). Eskuinetara izango ditugu Bilbo eta Nerbioi ibaia, eta ezkerretara Alonsotegi eta hango presa txikia.

Erreztalekun xendra bat hartuko dugu, eta zuzen jaitsiko gara Arraizko aisiarako eremura doan pistara. Handik, Errekalde auzorako bidea hartuko dugu Casillaraino, eta, nahi duzuenok, parte hartu ahalko duzue euskal preso politikoen eskubideen alde lan egiten duen **Sare** plataformak

**17:00**etarako antolatutako manifestazioan.

## Eguraldiaren aurreikuspena:

LOTURA HONETAN egunero gaurkaratua

## Deskargatzeko TRACKa :

PAGASARRI

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

## DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

## Kokapena

Metatutako desnibela +745 / -770

Luzera 18'3km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

## Elkartzeko tokia eta ordua

Panerako autobús geralekutik 10:00etan

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Panera. La casilla

## Irteerarako izena emateko azken eguna

## Jakin beharreko kontu teknikoak

Basicos

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Normal

## Material tekniko beharrezkoa

Botak era neguko arropa

## Bestelako oharrak

## Argibide gehigatarako

Koldo 629062594 castellano. Juanto 675717371 euskara

